


Hitzatzea

Hitzak sobera daude, irudiak mintzo bitez

Mikel Ayerbe



Belén Lucas

Album ilustratuak definitzeko orduan argi dago gisa horretako liburuetan hitzek eta irudiek bat egin behar dutela, eta uztarketa horren ondorioz, irakurleari bestelako irakurketa-proposamen bat egiten zaiola. Testu eta irudigintza diziplinen arteko ezkontzaren arabera, irakurketa-aukerak ugaritu eta aberastu egiten dira. Ilustrazioek ez dute testuko hitzek diotena soilik islatzen edo «ilustratzen», eta, are gehiago, ilustrazioen irudi-kateak hizkuntza narratibo beregaina izan behar du. Hori horrela, album bat sortzeko nahitaezko elementua irudiak, eta ez hitzak, direla babesten duenik ere bada. Horren adierazle izan daitezke testurik zein hitzik gabe, ilustrazioekin bakarrik osatu eta *album mutu* gisa bataiatu diren liburuak.



Eider Eibar



Album mutuak edo narrazio grafikoak: definizioa eta ezaugarriak

Album mutu terminoa erabiltzen du album ilustratuetan aditua den Teresa Duranek testurik gabeko album ilustratuak definitzeko. Dena den, agian beste izen bat asmatu beharko litzatekeela ere zalantza egiten du, eta, adibidez, *narrazio grafikoak* proposatzen du gisa horretako liburuak izendatzeko. Testurik ez egoteak ez du esan nahi irakurketarik ez dagoenik, sarritan irudiek ere kontatu egiten dutelako eta badelako ilustrazioen bidez gauzatzen den narrazio bat, hitzik egon ez arren. *Faristol* aldizkarian argitaraturiko Emma Boschen hitzik gabeko liburuen banaketa tipologikoaren arabera, hitzik gabeko liburu narrazioak dira gisa horretakoak.


Horrez gain, Duranek aurrez egin bezala, hitzik gabeko liburuek sarritan irakurle zein bitartekariengandik jasaten dituzten aurreiritziak salatzen dira Boschen artikuluan. Izan ere, album horiek, testurik ez duten neurrian, gehienetan irakurtzen ez dakiten hartzaileentzat bideratzen dira. Irakurtzen ez dakiten txikienek irakurtzeko moduko liburu gisa plazaratzen dira album mutuak, eta auzi horrek agerian uzten du, beste behin ere, testu-eta ilustrazio-diziplinen arteko jauzia, testuaren nagusitasuna ilustrazioekin alderatuta.


Testu gutxi eta marrazki asko dituzten liburuak, nonbait, testu asko eta marrazki gutxi duten liburuak baino «errazagoak» dira. Baina kontua ez da horren sinplea, eta, askotan, hitzik gabeko albumak irakurtzea testua

duten liburuak irakurtzea baino nekezagoa da; are gehiago irakurleak (izan haur edo heldu) irudiak irakurtzeko ohiturarik ez badu. Izan ere, irudien eta ilustrazioen sekuentzializazio narratiboaren bidez istorio bat kontatzen duen liburuak irakurtze-ariketa aktibo eta parte-hartzailea eskatzen du. Testuak berekin dakar erritmoa, badakigu non hasi eta non amaitzen den, testuak gidatzen du irakurketaren norabidea. Baina ilustrazioak irakurketaren norabidea irakurlearen esku uzten du; gutxieneko sekuentzializazio bat egon arren, irudiak ikusteko erritmoa ezin da testuarekin alderatu, askeagoa da, beste irakurketa-erregistro bat gailentzen baita. Eta horretarako, beharrezkoa da irudiak irakurtzen ikastea, begia zorroztea eta ilustrazioek eskaintzen dutena adi-adi aztertzea.

Izan ere, hitzik ez duten baina irudiz gainezka dauden liburu askok xehetasunak lantzeko aukera bikaina ematen dute. Kontakizun nagusiarekin batera, bestelako detaileak eta itxuraz txikikeriak diruditen elementuak garrantzitsu bihurtu eta irakurlearen arreta bereganatzen dutelako, eta, era berean, ikuslearen kontzentrazio-gaitasuna areagotzen delako. Xehetasun –zenbaitetan bitxi, askotan barregarri– horien bila ibiltzeak agerian uzten du liburu horien zentzu ludikoa, eta arrakasta

Dani Maiz





Mattin

handia izaten dute, bitartekariak eta haurrak batera, zeinek zer aurkituko, liburuok joko gisa erabiltzen badituzte.

Narrazio grafikoen beste berezitasun bat hizkuntzaren auziari dagokiona da. Marrazkien, irudien eta ilustrazioen hizkuntza unibertsala da. Ikusle guztiok berdín uler dezakegu irudi batek erakusten diguna eta, beraz, testua duten liburuetan ez bezala, hizkuntza bat ez jakitea ez da oztopo bihurtzen hitzik gabeko liburu bat irakurtzeko. Egia da album mutuek izenburu bat behar dutela, eta normalean hor ageri dela hizkuntza-marka zehatza: albuma zein literatura sistematan eta zein merkatutan kokatzen den eta zein hartzaileentzat bideratzen den. Baina muga hori, izatez, ez da obrarena, ez bada argitaletxeek eta merkatuaren legeek ezartzen dituzten arauen arabera.

Bestalde, album mutuek hitzik ez duten arren, hizkuntza erabiltzeko, elkarrekintzarako eta elkarrizketarako erabat aproposak dira. Ikusten ari garena hitzez kontatuko diogulako ondoan dugunari, edo adibide bat jar-tzearren, ikusitakoaren gainean hitzez idatzi bat egin ahal izango dugulako (hitzak ikasteko, hizkuntza eta sekuentzializazio narratiboa barneratzeko eta bestelako ekintzetarako ere erabiltzen dira gisa horretako liburuak).

Album mutuak gurean: gureganatzeko proposamen bat

Euskal literaturaren zirkuituan izan da ahaleginik istorio bat kontatzen duten album mutuak gurera ekartzeko. Tarttalo argitaletxeak 2005ean kaleraturiko *Zatoz, txantxangorria, zatoz!* eta *Zeuk bakarrik ikusten nauzu!* Katalunian sorturiko liburuen itzulpenak kasu. «Hitzik gabe» bilduman argitaratu ziren, baina zoritxarrez ez zuten arrakastarik izan, eta bilduma bere horretan gelditu zen. Eta, egia esan, ez dakit gurean horrelako beste ekimenik egin den, euskal argitaletxe batek izenburua euskaraz duen eta euskal sortzaile batek eginiko hitzik gabeko liburuak argitaratu ote duen. Maite Gurrutxagak autoeditatu ditu ariketa gisa sorturiko hitzik gabeko pare bat lan aipagarri, baina autoedizioekin sarri gertatzen den bezala, zabalkunde urria izaten dute eta, tamalez, nekez eskura daitezke.

Beraz, zerbait ez dagoenean besteek egiteko zain egon gabe, hemen proposatuko duguna harantzago doan aukera da: gure inguruko literatura-sistemetan kaleratu diren liburuak-albumak gureganatzea. Hau da, inguruko literatura-zirkuituetan argitaratu diren hitzik gabeko liburuak irakurtzea eta geure egitea. Esan bezala, hitzik gabeko liburuak gehienez ere izenburua izango dutelako beste hizkuntza batean, edo kontrazaleko beste testuren bat, baina paratestua inondik ere, liburuaren barrukoa bere horretan mantenduz. Horrela bada, erabat aipagarriak diren album mutuen irakurketa proposamen bat eskainiko da hemen (proposamen guztiak bezala, erabat irekia eta auke-

Jokin Mitxelena





Enrique Monente

rakoa). Hasiara batean, album mutuen azpigeneroak zehatzegia eta mugatua badirudi ere, hitzik gabeko liburuak ugari dira, eta aukeraketa are gehiago mugatu da, narrazio edo istorio bat kontatzen duten album mutuen artean egin baita jarraian eskaintzen den irakurketa proposamena.

Txikienentzat egokiak direnen artean, Suzy Lee-ren *La ola* eta *Espejo* liburuak daude. *La ola* neskabila batek, kaioak lagun, olatu batekin duen abentura kontatzen da kolore zuri, beltz eta urdinaren nahasketa soilarekin. *Espejo*n, aldiz, neskabila bere islarekin jostatzen da, harik eta zerbait arraroa gertatzen hasten den arte. Oraingoan zuria, beltza eta laranja dira liburuko kolore bakarrak. Cristina Pérez Navarroren *En el silencio del bosque* ipuin mutuan ere koloreek berebiziko garrantzia dute, basoan pilota galdu duen neskatilaren sentipenak koloreen bidez transmititzen baitira.

Behaketa ariketa zorrotzagoa eskatzen dutenen artean, Antoine Gilloppé-ren *Predateurs* liburuko zuri-beltzeko argi-itzaletan sagu batek aldi berean hontz bati eta katu bati nola ihes egiten dien jabetuko gara. V. Guyeltier eta V. Mathy-ren *La guerra de almohadas más grande del mundo* ikusgarrian puzker baten onomatopeiak abiatzen du argumentuaren haria; beltzetik zurira eginiko bidaia koloretsuan neska-mutilen arteko borrokan behin eta berriz ikustea merezi duten hamaika xehetasun umoretsu ezkututzen dira. Beatricé Rodríguez-en *Ladrón de gallinas*-en amaierako ezusteak du garrantzia eta hitzik egon gabe ere sekuentzializazio narratiboa (hasiera-korapiloa-amaiera) eta erritmoa ezin egokiago banatzen dira. Mandana Sadat-en *Mi león* kontakizun mutuan umeak eta lehoiak hainbat sakrifizio egin beharko dituzte euren ezinezko adiskidetasunari heltzeko.

Album ilustratuekin maiz gertatu bezala, hitzik gabeko albumetan ere liburuaren formatuarekin eta bestelako elementuekin esperimentatzeko joera handia dago. Emilie Vast-en *Korokoro* liburu bitxia eskusoinu bat bailitza zabaltzen da. Era berean, triku txikiari arantzetan itsasten zaizkion naturako elementuen xehetasunen berri izango dugu, amaierako ezustekora iritsi arte.

David Merveille-ren *Le jacquot de Monsieur Hulot* eta *Hello Monsieur Hulot* liburuek bestelako aipu bat merezi dute, Jacques Tati-ren filmetako protagonista berreskuratu eta haren pelikuletan bezala, hitzik erabili gabe istorio erabat orijinal eta umoretsuak asmatzen baititu. Lehenengoan, eskuineko orriak zabaldu egiten direlako, mugimendu azkarreko eta gertaera askotariko istorioa gauzatzen da; bigarrenean, egunkarietako tira komikoetara hurbilduz, hamaika mikro-istorio labur biltzen dira.

Jörg Müller-en *Soldadito de plomo* ere zinez aparta da. H. C. Andersen-en *Berunezko soldadutxoaren* ipuin ezaguna berrasmatu eta lehenengo mundutik hirugarrenera eta atzera lehen mundura eginiko bidaiaren berri ematen du modu erabat berritzailean, eta, besteak beste, gure egungo gizarteko arazoei kritika egiten die, gainera. Lanaren izenburuan bildu bezala, Ajubel-ek eginiko *Robinson Crusoe: una novela en imágenes inspirada en la obra de Daniel*

Iraia Okina





Manu Ortega



Defoe ere Daniel Defoeren *Robinson Crusoe* nobelan oinarrituriko hitzik gabeko irudien bidezko adaptazioa da. Esanguratsua da Ajubelen liburua haurrei zuzenduriko Media Vaca argitaletxeak kaleratu izana, argitaletxe horren aurreneko liburua ere mutua izan zelako, aldarrikapen gisako izenburu argidun Arnal Ballesterren *No tinc paraules*, hain zuzen.

Hitzekin jolastu arren, hizkuntza kontzeptu gisa agertzen da arrainen arteko elkarrizketa/bakarrizketa ulergaitz bat erreproduzitzen duen Mar Cerdà i Alberten *Too Late* liburu labur baina burutsuan. Izenburuak iragarri bezala, gauzez berandu ohartzeak dakarren damuaren inguruko irakaspena jorratzen da.


Aldiz, albumaren eta komikiaren muga dabil David Wiesner-en *Flo-tante*; bi orritako ilustrazioekin batera tamaina askotako binetak erabiltzeak erritmoa markatzeaz gain, itsasoak ekarritako argazki kamera magiko baten istorio eta irudi bitxiak eskaintzen dituelako.

Shaun Tan-en *Emigrantes* ere hitzik gabeko maisulan bat da, album ilustratua, nobela grafikoa, komikia edo dena delakoa izan. Etorkinen gaia fantasia eta zientzia-fikzioarekin nahastu, eta antzinako argazkien tonu sepia nagusitzen den arren, modu erabat errealistan jorratzen ditu erbesteratuaren bidaia eta atzerriak sorturiko deserrotzea eta lilura. Gainera, ez da guztiz

egia hitzik gabeko liburua denik, liburuan badirelako hizkuntza bat aditzera ematen duten hitzak, nahiz eta munduko ezein irakurlek ezin ulertu. Sortzaileak obrarako nahita sorturiko hizkuntza bat da, etorkinak mundu berri batean aurki dezakeen hizkuntza berria ez ezagutzeak sor ditzakeen oztopoen berri emateko.

Badira, noski, hitzik gabeko komikiak ere. Nik ez dakit Terenci Moix-en iragarpen hura beteko den: «Izan ere, gure mendeko patua baita hau; sortu zenetik, komikia irudiaren erabateko nagusitasunerantz doa». Baina, kontua da, komikien artean ere hitzik gabekoak ugaritzen ari diren irudipena dudala. Haurrentzakoen artean hor daude Bang argitaletxeko *Mamut* saileko txikienei zuzenduriko komikiak, Régis Faller-en *Pol* saileko bi liburukiak, Guy Delisle-ren *Luis va a la playa* eta Lewis Trondheim-en *ALIEEN* zientzia-fikziozko liburu naif arraroa. Helduentzako, berriz, Pedro Espinosa-ren *Loco* edo Thomas Ott-en *Cinema Panopticum* eta *El número 73304-23-4153-6-96* tetriko-siniestroak. Komiki mutuak, ordea, beste baterako utziko ditugu. Hitzik gabeko irudidun liburuaren gainean aritzeko jadanik hitz gehiegi idatzi baitira hemen. Hitzik gabeko liburu narratibo aipatuak:

Jose Tellaetxe



- BLANCH, Xavier & ROVIRA, Francesc (2005); *Zatoz, txantxangorria, zatoz!*, Ttartalo, Donostia.
- SABRÍA, Clara & PIÉROLA, Mabel (2005); *Zeuk bakarrik ikusten nauzu!*, Ttartalo, Donostia.
- LEE, Suzy (2008); *La Ola*, Barbara Fiore Editora, Alborote.
- LEE, Suzy (2008); *Espejo*, Barbara Fiore Editora, Alborote.
- PÉREZ NAVARRO, Cristina (2010); *En el silencio del bosque*, A buen Paso, Madril.
- GILLOPPÉ, Antoine (2007) *Predateurs*, Editions Thierry Magnier, Paris.
- GUYELTIER, Vincet & MATHY, Vincent (2009); *La guerra de almohadas más grande del mundo*, Adriana Hidalgo, Madril.
- RODRIGUÉZ, Beatricé (2009); *Ladrón de gallinas*, Libros del Zorro Rojo, Bartzelona.
- SADAT, Mandana (2006); *Mi león*, Fondo de Cultura Económica, Mexiko, D. F.
- VAST, Emilie (2009); *Korokoro*, Barbara Fiore Editora, Alborote.
- MERVEILLE, David (2006); *Le jacquot de Monsieur Hulot*, Éditions du Rouergue, Paris.
- MERVEILLE, David (2010); *Hello Monsieur*, Éditions du Rouergue, Paris.
- MÜLLER, Jörg (2005); *Soldadito de plomo*, Lóguéz, Santa Marta de Tormes.
- AJUBEL (2008); *Robinson Crusoe: una novela en imágenes inspirada en la obra de Daniel Defoe*, Media Vaca, Valentzia.
- BALLESTER, Arnal (1998); *No tinc paraules*, Media Vaca, Valentzia.
- CERDÁ I ALBERT, Mar (2012), *Too Late*, Proteus, Cànoves.
- WIESNER, David (2007); *Flotante*, Océano de México, Mexiko, D. F.
- TAN, Shaun (2007); *Emigrantes*, Barbara Fiore Editora, Alborote.
- FALLER, Régis (2005); *Pol i Lilit*, Combel Editorial, Bartzelona.
- FALLER, Régis (2005); *Pol fa de mag*, Combel Editorial, Bartzelona.
- DELISLE, Guy (2010); *Luis va a la playa*, Kalandraka, Pontevedra.
- TRONDHEIM, Lewis (2011); *ALIEEN*, Ediciones Kraken, Madril.
- ESPINOSA, Pedro (2005); *Loco*, Astiberri, Bilbao.
- OTT, Thomas (2005), *Cinema Panopticum*, La Cúpula, Bartzelona.
- OTT, Thomas (2008), *El número 73304-23-4153-6-96*, La Cúpula, Bartzelona.

Las palabras sobran cuando las imágenes hablan

La principal característica de los álbumes ilustrados es la interacción entre palabras e imágenes en un mismo libro. Sin embargo, este artículo pretende analizar álbumes contruidos solo con ilustraciones, sin necesidad de palabras. Partiendo del término «álbum mudo» acuñado por Teresa Durán, se pretende enumerar las características de los libros ilustrados que narran una historia sin texto alguno. Por otro lado, tras identificar algunos de los prejuicios generados por dichos álbumes, se señalan las cualidades emanadas de ellos. Y por último se propone, con intención de superar la escasa presencia de álbumes mudos en el sistema literario vasco, una apropiación desde los sistemas literarios del entorno, ya que el idioma no es impedimento. Se destacan para ello, a continuación, algunos interesantes álbumes ilustrados sin palabras.

Words are superfluous when images speak

The main feature of picture books is the interaction between words and images in one and the same book. Nevertheless, this article sets out to analyse picture books made up of illustrations alone without any need for words. On the basis of the term «silent picture book» coined by Teresa Durán, the aim is to list the features of the illustrated books that tell a story without any text at all. On the other hand, after identifying some of the biases generated by these story books, the qualities emanating from them are pointed out. And finally, a proposal is made in order to overcome the scarce presence of silent story books in the Basque literary system, which has resorted to the neighbouring literary systems, as language poses no obstacle. So some interesting picture books without words are highlighted below.